

## TXOSNETAKO 2022KO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

1. **Txosnetako idatzizko elementu guztiak** (prezioak, oharrak, kartelak eta idatzizko beste edozein elementu) **euskaraz** egongo dira. **Bi hizkuntzetan egonez gero, euskarari emango zaio lehentasuna**, testuaren barruan duen egoera lehenetsita: **euskara ezkerrean edo goialdean** kokatuko da.  
Euskarazko terminologia gaztelaniazkoaren oso antzekoa denean edota gizartean oso errotuta dagoenean (prezioa, botila, ura...), euskaraz bakarrik erabiltzea gomendatzen da.  
Itzulpengintzan eta testu elebidunetan aplikatu beharreko irizpideei buruzko kontsultetarako ere, laguntza teknikoa eskatu ahal izango da udalaren euskara zerbitzurako, betiere 4 eguneko gutxieneko epearekin.
2. Arreta ematen duten pertsona guztiak elebidunak izatea gomendatzen da, eta **txanda bakoitzean gutxienez pertsona euskaldun bat izango dela bermatuko da**. Gainera, txanda jendetsuenetan, artatzen duten pertsonen herena euskaldunak izango dira.
3. **Agurrak eta lehen hitzak euskaraz izango dira beti, eta artatzen diren lagunak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehiago erabiliko dugu euskara, agurrera mugatu gabe.**
4. **Musika nagusiki euskalduna izango da, eta inoiz ez guztizkoaren % 65 baino txikiagoa.**
5. **Megafoniaz transmititzen den informazio guztia elebitan emango da**, lehendabizi euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.
6. **Txosnetako arduradunek ekitaldi edo jarduerarik antolatzen badituzte, gutxienez bi hizkuntzetan aurkeztuko dira, ekitaldi/jarduera osoan euskara egon dadin saiatuz. Nolanahi ere, jarduera horiek adingabeei zuzenduta badaude, euskara hutsean dinamizatuko dira.**